

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
2007/2008 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Euroa 1999.ean jaioko da eta, 2002.eko uztailaren 1ean, Europako Batasunean sartuko diren Estatu guztietan bideratze legala edukiko duen diru bakarra izango da. Gustuko izan ala ez, egoera berri batean egongo gara, edo hobeki esanda, jadanik bagaude, zeren egiten ari diren prestakuntzak eta ahaleginak, Maastrich-eko Itunak inposaturiko baldintzak betetzeko batez ere, aspaldi honetan eragin handiak izaten ari dira arlo sozioekonomikoan, Europa osoan.

Euroa, diru sendoa izango denez, hazkunde ekonomikoaren azeleragailu eta enplegu sortzailea izango da. (Jacques Chirac)

Aspaldi honetan honelako iritziak entzuten dira etengabe **nonahi**. Ze inozoak izan garen ekonomialariak! Hazkunde ekonomikoa eragiteko eta lanpostuak sortzeko beti ikasten, eztabaidatzen, eta erantzun zuzena eskura genuen: diru bakarra zen gure gaitz nagusien sendabidea! David Hume, Adam Smith, Keynes eta Marx-en teoriak **amen** batean suntsitu ditu euroak. Hamaika ikusteko jaiok gara!

Diru bakarra hautatzean, ona den guztia haziko da: <<Euroarekin, Euskadi garaile>>. Bat-batean denok izango gara guapoagoak, aberatsagoak, zoriontsuagoak, askeagoak, demokratagoak...

Euroari buruz horrela berba egitea adar jotze lotsabako bat baino ez da, bizilagunen adimenari inolako errespaturik ez edukitzea... ez da beharrezkoa teoria handiak garatzea, diru bakarrak berez ez duela balio funtsezko arazo ekonomikoak konpontzeko. Izan ere, errealitateari berari begiratzea baino ez dago: bi Alemaniak batu baino lehen, diru eta maila sozioekonomikoa erabat desberdinak zituzten; batasuna gauzatu eta gero, nahiz eta diru bakarra izan, desberdintasunak ez dira desagertu, nahiz eta urte dexente igaro. Estatu Espainiarrean, batasun monetarioa aspaldiko kontua den arren, erregioen arteko desberdintasunek tinko diraute.

Zentzu honetan, beti eduki behar dugu gogoan kapitalismoak duen funtsezko legea, <<Garapen desberdineko printzipioa>> deritzona. Lege hau ankerra da: urteak hil, urteak jaio, ezinbestez, lurralde pobreen eta aberatsen

arteko desberdintasunak gero eta handiagoak izango dira –**txiroak** gero eta txiroago, aberatsak gero eta aberatsago–.

Gure ustetan, moneta batasunak ez du bide errazik eta baketsurik izango, aspalditik ikusarazi **gura** gaituzten bezala. Beste oinarrizko lege bat aipa dezakegu, ekonomia mundua, edozein gauza izan daiteke, baino, lasaia bederen, ez. Ezkertiar izateko inolako osperik ez duten askok, moneta batasuna kaltegarria izan ez dadin, Maastricht-eko Itunak porposatzen duena baino asko zailago eta hertsiago den bateratasun bat behar dela diote.

Joselu Cereceda, Jakin aldizkaria 1998ko abuztua.

Galderak

1. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman. Hona hitzak: *amen, berba, gura, txiroak, nonahi* (Puntu bat).
2. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (1'5 puntu)
3. Azpimarraturik dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin. Hona hitzak: *prestakuntza, ekonomialariak, garaile, lurralde, ezkertiar* (1'5 puntu)
4. Aztertu testuaren kohesioa eta koherentzia. (3 puntu)
5. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa. (2 puntu)
6. Aipa itzazu Bernardo Atxagaren idazlanak eta kokatu bere ingurune historikoan (Puntu bat)

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (D eredu)
 EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
 2007/2008 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Artikulu honek akuilu izan nahiko luke. Nik egin dudana baino zerbait gehixeago egiteko gogoia piztu nahiko nioke norbaiti. *Ikertzailearen* bati gonbitea egin. Aitor dezadan hasieratik, ez naizela dokumentatu, ez dudala datu pilaketarik egin, ez dudala ikertzaileek erabiltzen duten metodologia egituratu eta zientifikorik erabili. Edozein kasutan, susmoa daukat eurak ere – ikertzaileek– demostratu nahi duten tesiaren ondorioa alde aurretik jakiten dutela **sarritan**, eta besterik ez bada horretan behintzat, bai eurak eta baita neu ere, maila berean gaudela. Badakit zenbait ikerketa soziologiko, zenbait ikerketa zientifiko izugarri baliotsuak direla gizartiarentzat oro har. Baina lan horien guztien abiapuntuan intelektualaren intuizioak, datu ez zientifikoak dauden inpresioa eta uste osoa dut.

Hauek guztiak esanda, hausnarketa eta *ikerketa* soziologiko, sozial eta politikoetan zentratu nahi du orain, nolabait esatearren. Badakit munduan eta munduko gizarteetan gertakari onartezin **gehiegi** dagoela, eta onartzen dut, horien aurrean analisiak egin behar direla eta analisisen ondoren aurre egin behar diegula, borrokatu eta eraiki.

Baina gertatzen zait konturatuta nagoela, formulazio “progreek”, edo horietako batzuek bai, behinik behin, “zirkulu” jakin batzuetan gehientsuenon kritika errazegiak ahalbideratzen dituztela. **Itzela** da daukagun erosotasuna eta ausardia arazorik sortuko ez digun horren inguruan gure iritzirik gogorrena eta kosturik gabekoa adierazteko. Ez dakit zergatik den baina “politicamente correcto” terminoa ekartzen dit gogora. Lagunartean –progretoen artean– errazegi, barra-barra eta *indartsu* jaurtitzen ditugun pozoin eroso horien adibide batzuk jar ditzadan: ez dagoenari buruz aritzea, ekologia, euskara, agintariak, *hezakuntza*, medikuak, kooperatiba handiak, ekintzaileak, enpresak, arrakastadun artistak... Bale, bale, bale. Ondo dago. Baina erraza da, errazegia. Somatzen dut beste agente, portaera edo erakundeez gabiltzanean ez dugula zorrotasun bera erabiltzen. Jar ditzadan gure koldarkeriaren adibide batzuk: gure ametsetako etxe hori eraikitzeke erabili ditugun material guztiak gordin aitortzea, kontsumo neurribakoa, aurrean daukagunari egia esatea, sindikatuen benetako zeregina eta zentzua, funtzionariengan oinarritutako publikotasuna eta ez herrigintzan...

Ez da zilegi, onartzen dut, hauek denak orokorrean aztertu eta neurgailu berarekin kritikatzeko. Ez da zilegi, ezta ere, gai batzuei buruz inoiz ez **aritzea**.

Injustiziak, ez dira komeni zaigun **esparruan** bakarrik agertzen, uste dut, testuinguru "delikatuagoetan" ere bizi direla, eta ze ondo!

Tarte eta gogo handiegirik ez daukadanez, proposatzen diot norbaiti azter dezala labainkorra izan daitekeen gai edo jardueraren bat ikertzea. Gazte kontzientziatuei, erakunde sozialen bati, ikertzaile ausartei, abertzaleren bati...proposatzen diot araka dezala kontu ukiezinen bat. Hasteko, estimulagarria izan daitekeelakoan nago, adibidez UPV/EHU-ko Irakasle, katedradun, doktore eta abarren lan orduak, lan ordu lektiboak, asistentzia maila, soldatak...

Argia aldizkaria, 2006ko otsaila

Galderak

1. Letra etzanean dauden hitz atzizkidunak bila itzazu eta sortu hiruna hitz berri gehiago atzizki bakoitzarekin. Hona hitzak: *ikertzaile, ikerketa, indartsu, hezkuntza* (Puntu bat).
2. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *sarritan, gehiegi, itzela, aritzea, esparruan* (Puntu bat).
3. Eman erregistro neutroko adizki hauei dagozkien hitanozko formak: *daukat, dut, zait, dit* (Puntu bat).
4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik agertzen diren perpausak (Puntu bat)
5. Aztertu testuaren egokitasuna (3 puntu).
6. Egin ezazu testuaren gaineko balorazio kritikoa (2 puntu).
7. Azal ezazu zein izan zen Gabriel Arestiren garaia eta aipa itzazu idatzi zituen idazlanak (Puntu bat).